

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### OSASUN SAILA

## 2125

*IRAGARKIA, Ondarroako farmazia-eskualdean (Bizkaia) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko dena.*

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuko 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, Ondarroako farmazia-eskualdean (Bizkaia) dagoen farmazia baten % 100 eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazten da.

Eskuratzeko interesa duten botikariek honako leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia-San Sebastián.
- Osasun Sailaren Bizkaiako Lurralde Ordezkaritza, Errekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Farmazia eskuratzeko eskabideei 274,81 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 12a.

Farmaziako zuzendaria,  
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.